

**KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA**

DEPARTAMENTUA	Kultura, Gazteria eta Kirola	2013	41.988.102
		2014	43.440.935

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Zerbitzu Orokorrak

Kodigoa 01

Generoaren garrantzia Gutxi

Aurrekontua 3.689.454

1. Taula**Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta Departamentuaren portzentajea azken urteotan**

	2012	2013	2014	13/12	14/13
GASTUA (mila eurotan)	3.812,00	3.638,00	3.689,00	-4,56%	1,40%
% DPTUA. AURREKO.	9,75%	9,50%	8,49%	-2,54%	-10,61%

Programa Departamentuak duen aurrekontuaren % 8,49 da.

Programak jasotzen dituen helburuak, kolektiboak eta jarduerak

Helburua: Departamentuari esleitutako berdintasun planaren neurriak ezartzea

Kolektiboak: Administrazioaren langileei zuzendutako jarduera. Hiritarrengan zeharkako eragina du bakarrik.

Jarduerak: Plana burutzeko lanen inguruko proposamen eta jarraipen bilerak koordinatzea.

Generoaren ikuspegia kontuan hartuz Departamentuko aurrekontu programen analisia koordinatzea .

Kontratazio prozesuetan generoaren ikuspegia jasotzea.

Diru laguntzak emateko prozesuetan generoaren ikuspegia jasotzea.

Departamentuaren komunikazio ikus-entzunezkoetan eta idatzietan genero hizkuntza berrikustea.

Sexuaren arabera bereizitako datuen bilketa proposatzea, beharrezkoa den tokian.

Analisi kuantitatiboak generoaren arabera

Goian esan den bezala, programak ez du eragin zuzenik hiritarrengan, administrazioako langileengan baizik. Departamentuari esleitutako planaren neurrien % 100 burutu nahi da 2014. urtean



Analisi edo gogoeta kualitatiboa

Departamentuari esleitutako Foru Aldundiko Berdintasun Planaren neurri zehatzak burutzen diren programetan egiten da analisi edo gogoeta kualitatiboa.

**KIROLA, GAZTERIA ETA KULTURA DEPARTAMENTUA**

DEPARTAMENTUA	Kirola, Gazteria eta Kultura	2013	41.988.102 euro
		2014	43.440.935 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Euskal Arte Garaikidea

Kodigoa 2.12

Genero Egokitasuna Ertaina

Aurrekontua 4.671.209

1. Taula**Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia**

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA (mila eurokoak)	446,69	640,16	4.615,21	4.671,21	43,31%	620,95%	1,21%
DEPARTAMENTUAREN AURREKONTUAREKIKO %	1,54%	1,37%	10,99%	10,75%	-11,15%	703,30%	-2,17%

*2013an Programa berria osatu zen eta bertan Erakustaretoa sartu zen: Euskal Arte Garaikidea.

Programaren helburuak, hartzailleak eta jarduerak

Programaren helburua da euskal arte garaikidea supertzea, sorkuntza zein ezagutza.

- Hartzailleak; Sortzaileak eta herritarrak
- Programa honek jasotzen ditu Kultur zuzendaritzak arte garaikideari eskaintzen dizkion zerbitzuak, egitasmoak eta azpiegiturak: Arteleku, KMko Erakustaretoa, TBK eta Lekuona, batik bat.

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

Honako hauek dira azterketa kuantitatiboan kontuan hartutako jarduerak nagusiki:

- Erakustaretoa: Komisarioak, Artistak eta bisitariak kontuan izaten du
- Arteleku: Mintegi eta tailerreko zuzendariak eta irakasleak; parte-hartzailleak; eta, bereziki, arte feministari eskeinitako praktikak eta pentsamendu feministaren hedapena,



Erakustaretoa: Aurrekontu orokorra eta zein protzentaje generoaren arabera

	2014
Erakustaretoa/ Sala de Exposiciones	210.600,00

Generoaren inpaktoa aurrekontuan Impacto de genero en el presupuesto		
Emakumezkoak/ Mujeres	50,00%	105.300,00
Gizonezkoak/Hombres	50,00%	105.300,00

Arteleku: Aurrekontu orokorra eta portzentajea generoaren arabera.

Arteleku	2014
Kudeaketa eta programazioa/ Gestión y programación	568.100,00

Generoaren inpaktoa aurrekontuan Impacto de genero en el presupuesto		
Emakumezkoak/Mujeres	55,00%	312.455,00
Gizonezkoak/ Hombres	45,00%	255.645,00

**KULTURA, GAZTERIA ETA KIROLA**

DEPARTAMENTUA	Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Zerbitzua	2013	41.988.102 euro
		2014	43.440.935 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena	Gazteria (Aterpetxeak)
Kodigoa	2.20
Genero Egokitasuna	Garrantzi handikoa
Aurrekontua	6.431.408

1. Taula

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentajea

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA	1.645.704	1.284.092	1.059.977	1.045.250	-21,97%	-17,45%	-1,39%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %	15,08	18,94	17,45	2,41%	25,59%	-7,85%	-99,86%

Programaren helburuak, hartzailak eta jarduerak

Beren aisialdiaren barne hezkuntza, kultura, kirol eta jolaseko ekintzak egin eta beren ikasketak osa ditzaten, haur eta gazte taldeei egonaldiak eta ostatua eskaintzen dizkieten ekipamenduak dira aterpetxeak.

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

2012

	Erreserbak GUZTIRA	Emakumeak	Gizonak	Emakumeen %
Taldeko erreserbak	532	335	197	63
Aterpetxe kideen erreserbak	935	411	524	44
Erakundeetatik egindako erreserbak	31	26	5	84
Egindako erreserba kopurua GUZTIRA	1498	772	726	51,5
Egindako erreserba % GUZTIRA	100	51,5	48,5	

Aterpetxeetan egun ez dira erabiltzaileen datuak lantzen. Zerbitzuen neurketa egiten da; alegia, zenbat zerbitzu erabili diren urtean zehar: loaldiak, bazkariak, afariak, etab. Urtean zehar aterpetxe bakoitzean egon diren erabiltzaileen kopurua jasotzeko, eskuz jaso beharko litzateke.



Erabiltzaileen arabera datuak, erreserbak egiten dituztenen datuetatik jaso daitezke; eta datu horiek sexuaren arabera desberdinak daude (ikusi goran dagoen taula). Taulan jasotako datuek ondorengo adierazten dute: 2012an, oro har, emakumeak dira erreserba gehien egiten dituztenak (%51,5); datuak zehazkiago aztertuz gero, aterpetxe kideen artean, ordea, gizonak dira erreserba gehien egiten dutenak; gainontzeko kasuetan, taldeko erreserbetan eta erakundeetatik egindakoetan, emakumeak nagusitzen dira. Emakumeek egiten dituzten erreserbak erabiltzaile kopuru handiagoa biltzen dituzte, erreserba hauek zerbitzu kopuru handiagoko eskaerak izaten direlarik (ondorioz, diru sarrera eta gastu handiagoa, etab.).

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Aterpetxeetan generoaren ikuspegia benetan txertatzeko, erabiltzaileen datuak kontutan izatea beharrezkoa da. Genero ikuspegia txertatzeak, egungo kudeaketan eta erabiltzen diren aplikazioetan aldaketak egitea eskatzen du; erabiltzaileei buruzko datuetatik -era erraz eta automatizatu baten bidez- ondorioak atera ahal izateko. Horrela eginez gero, aterpetxeen arloan kudeatzen den aurrekontuan, generoaren ikuspegia hobe aplikatu ahal izango da.

**KULTURA, GAZTERIA ETA KIROLA**

DEPARTAMENTUA	Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Zerbitzua	2013	41.988.102 euro
		2014	43.440.935 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena	Gazteria (Gazte Oporraldiak)
Kodigoa	2.20
Genero Egokitasuna	Garrantzi handikoa
Aurrekontua	6.431.408

1. Taula**Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentajea**

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA	363.061,00	365.244,00	253.866,00	260.322,00	0,60%	-30,49%	2,54%
DEPARTAMENTUAREN	3,33	5,39	4,18	0,60%	61,92%	-22,41%	-99,86%
AURREKONTUAREKIKO %							

Programaren helburuak, hartzailak eta jarduerak

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko, Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusiak, 2013an, 335 plaza eskaintzen ditu 14-17 urte bitarteko gipuzkoar gazteentzako udako ekintzetan. Aisia eta abenturako jarduerak eta frantsesa praktikatzeko egonaldiak barnean hartzen dituen programa honen helburu nagusia da gipuzkoar gaztetxoei beren aisialdi-astialdia modu aberasgarrian erabiltzen laguntzeko politika aurrera eramatea.

Aurtengo jarduerak uztailean eta abuztuan egingo dira eta 7, 10 eta 12 eguneko oporraldiak izango dira.

Ekintza asko eta era askotakoak eskaintzen dira. Abenturako jardueraz gain kulturalak eta ludikoak ere egiten dira oporraldietan, esate baterako: mendi ibilaldiak, eskalada, kanoiak jaistea, uretako jarduerak (surf, piragua, bela, urpeko igeriketa, raftinga,...), tailerrak (antzerkia, malabarismoa,...), kultura ibilaldiak.

Pirinio Atlantikoetako Departamentuko gazteekin batera, frantsesa praktikatzeko eta elkarren ezagutza bultzatzeko egonaldia burutuko dute 15 gaztek. Helburua da frantsesa ikasi, mugaz gaindiko harremanak areagotu, eta kirol ekintzen, jokoan, eta txangoen bidez ondo pasatzea.

Bestalde, musikarekin zerikusia duen "Gazterock" egonaldia ere aipatu behar da. Hau Gasteizen egingo da eta bertan Arabako gazteak eta gazte gipuzkoarrak elkartuko dira.



Dena den, txanda guztietan mota ezberdinetako ekintzez osaturiko programazioa izango dute, hau da, ekintza hezitzaileak, aisialdikoak, kirolak, kultur bidaiak eta taldeko ekintzak ere; guztiak harremanak eta aberastasun pertsonala lantzeko asmoz egingo dira.

2012n jarduera horretako parte-hartzaileen balorazioa 8,6eko puntukoa izan zen hamarreko eskala batean.

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

Aurrekontuak baldintzatuak, udalekuen plazen eskaintza %25 jaitsi da 2013an.

Gazte oporraldiak (14-17 urte)	2012 urtea	2013 urtea	Aldea 2012/2013
Plaza kopurua	444	299	-25

Sexuaren araberako partaidetzari dagokionez, datuak ondorengoak dira:

Neska-mutilak	GUZTIRA	Neskak %	Mutilak %
Aurre izen-emateak	1304	62,42	37,58

Heziketa-premia bereziak dituztenak. Parte-hartzaileak: 13	Gazte oporraldietako plaza kopuruarekiko % (299 plaza)	
	Neskak %	Mutilak %
Guztira	2,60	1,62

Gazte Oporraldietako zuzendari eta begiraleei dagokienez, sexuaren araberako banaketari buruzko datuak ez ditugu eskura. Programa honetan beste Autonomia Erkidegoekin elkarlanean aritzen gara, eta oraindik ez ditugu 2013ko datuak jaso.

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Ikus daitekeenez, nesken parte-hartzearen ehunekoa ia 24,84 puntu handiagoa da mutilenaren aldean. Lurraldean burutzen diren aisia hezitzaileko eskaintza desberdinetan, normalean, nesken parte-hartzea mutilena baino handiagoa izan ohi da.

Programa honetan hezkuntza-premia bereziak dituzten 13 lagunek parte hartu dute eta beste 23 bekadunak izan dira.

Nesken parte-hartzea mutilena baino handiagoa dela alde batera utzita, gure erronka da hezitzaile-taldeak udaleku desberdinetan genero-berdintasunaren gaia lantzeko gai izan daitezen haiek prestatzea. Erronka horrek beste bat dakar bere baitan, alegia: udalekuetako begirale eta zuzendariari espresuki egokitutako prestakuntza emango duten prestatzaileak aurkitzea; prestakuntza espezializatua lortzea, eta ikastaroak euskaraz emateko gai direnekin gainera.

**KULTURA, GAZTERIA ETA KIROLA**

DEPARTAMENTUA	Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Zerbitzua	2013	41.988.102 euro
		2014	43.440.935 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena	Gazateria (Elkarte, entitate eta aisialdi eskolei zuzendutako diru-laguntzak)
Kodigoa	2.20
Genero Egokitasuna	Garrantzi handikoa
Aurrekontua	6.431.408

1. Taula**Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia**

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA	612.887	196.189	190.781	211.000	-67,99%	-2,76%	10,60%
DEPARTAMENTUAREN AURREKONTUAREKIKO %	5,62	2,89	3,14	0,49%	-48,48%	8,55%	-99,85%

Programaren helburuak, hartzailak eta jarduerak

Elkarte eta erakunde desberdini zuzendutako diru-laguntzak biltzen dira programa honetan.

1. Udako oporraldian haurrentzako, nerabeentzako eta gazteentzako udalekuak eta kanpaldiak antolatzea.

Onuradunak ondorengo baldintzak bete behar dituzte:

- Egoitza eta jarduera Gipuzkoako Lurralde Historikoan izatea
- 3 eta 18 urte arteko haur, nerabe eta gazte gipuzkoarrentzako udalekuak, kanpaldiak, ibilaldiak edo udaleku irekiak antolatzea
- 5 eta 21 egun artekoak
- gutxienez 10 parte-hartzailerekin.
- Erakundeek era honetakoak izan behar dute:
 - Hezkuntza aisiarako programak garatzen dituzten udal antolaketa eta proiektuiko gazte elkarteak.
 - Ikastetxeetako gurasoen elkarteak.
 - Ikastetxeak.
 - Beste gizarte erakunde batzuk.

2.- Aisialdiko Eskolek urteko jarduera programa gauzatzea eta beren antolaketa egitura mantentzea.



Gipuzkoako haurren eta gazteen aisialdi eskolen antolaketa egitura mantentzeko eta haurren eta gazteen elkarteetako zuzendaritza taldeen prestakuntzarako urteko programetarako diru laguntzak ematea arautzea.

Emango diren diru laguntzak ondorengo irizpideen arabera baloratuko dira: ikastaroen kopurua eta mota (monitore izatekoa, zuzendari izatekoa, monografikoa); ikastaro bakoitzeko ikasle kopurua; euskararen erabilera eta genero ikuspegia txertatzea.

3.- Koordinakundearen edo federazioen elkarte egitura mantentzea.

Elkarte erakundearen antolaketa egitura mantentzeko diru laguntzak ematen dira.

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

Egun, ez da sexuaren aldagaiaren araberrako azterketarik egiten. Hurrengo atalean adierazten den moduan, aurtengo diru-laguntzetan hainbat irizpide berri txertatu ditugu, datu gehiago biltzeko, eta Haur, Nerabe eta Gazteria Zerbitzuko jardueraren hausnarketarako erabilgarria izango dena.

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

2013ko diru-laguntzetan irizpide berriak sartu dira:

- Beren helburuagatik, kideen onarpen edo sarbide sistemarengatik, funtzionamenduarengatik, ibilbidearengatik edo jardunarengatik emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren printzipioa urratzen duten pertsona fisikoek eta juridikoek ezingo dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eman beharreko diru laguntzen onuradun izan. Diru laguntza hauetatik kanpo geratzen dira, sexua dela eta diskriminatzen duten jarduerak.
- Jarduera programaren antolakuntza eta ebaluazio metodologian genero ikuspegia sartzea: puntuazioaren %15eko balioa du.
- Justifikazioarekin batera, erantsi behar duten memorian genero ikuspegiaren txertatzea adierazi behar dute. Genero ikuspegitik, programaren garapenean erabilitako metodologia azaldu: erabiltzaile edo onuradunen, eta lan talde edo boluntarioen sexuen araberrako adierazleez eta datuez osatuak; eta berdintasunari buruz hartutako neurriak, berdintasun plana duten, etab. Laguntzetan zuzenketa indize bat ezarriko da.

Erronka, irizpideen eraginaren azterketa egitea da. Datu horiek lagunduko digute jakiteko, zenbaterainoko eragina izan duten irizpide horiek onuradun izan diren elkarte eta entitate desberdinen funtzionamenduan. Interesgarriena, gainera urteetako eboluzioa izango da. Beraz, bi neurketa egin beharko lirateke:

Alde batetik, 2013an ezarritako irizpideen epe motzeko neurketa; irizpideak aldatu, hobetu edo egokitu behar diren jakiteko. Eta, bestetik, irizpideen epe ertain edo luzerako neurketa, alegia: erakundearen benetan izan duen eragina ezagutzeko. erakundearen jarduera eremu desberdinetan, emakumeen parte hartzearen areagotzean izan duen eragina, erakundearen helburuetan txertatzean, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko lanketa, Berdintasun plana eta ebaluatzeke metodologia izatea, etab.

**KULTURA, GAZTERIA ETA KIROLA**

DEPARTAMENTUA	Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Zerbitzua	2013	41.988.102 euro
		2014	43.440.935 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena	Gazteria (Udalei aholkularitza eta diru-laguntza)
Kodigoa	2.20
Genero Egokitasuna	Garrantzi handikoa
Aurrekontua	6.431.408

1. Taula**Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia**

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA	900.399,00	857.074,00	793.185,00	846.897,00	-4,81%	-7,45%	6,77%
DEPARTAMENTUAREN AURREKONTUAREKIKO %	8,25	12,64	13,06	1,95%	53,21%	3,31%	-99,85%

Programaren helburuak, hartzailak eta jarduerak

Programa honen bidez Gipuzkoako udalen kasuan kasuko errealitateari erantzun nahi dio, horretarako bakoitzaren eskari eta egoera zehatzei egokitzuz. Beraz, herrietako esku-hartze maila desberdinak jasotzen dira, hala nola:

- Aholkularitza puntuala
- Gipuzkoako haurren eta gazteen sustapenerako sistema sendotzeko aholkularitza.
- Hobekuntza egitasmo bat garatzeko aholkularitza
- Haurren eta gazteen toki mailako Plana garatzeko aholkularitza

Esku-hartze motaren arabera, bai Udalak bai Gazteria Zuzendaritzak konpromiso eta inplikazio maila desberdina izango dute.

Herrian burutu beharreko esku-hartze motaren arabera, lankidetzak eta koordinazio eskema desberdinak ezarriko dira Udalaren eta Gazteria Zuzendaritzaren artean. Ekintza puntualak ezik, lankidetzak, bi erakundeen konpromisoak jasotzen dituen hitzarmenaren bidez formalizatuko da.

Bi erakundeen arteko lankidetzak prozesua udaletatik esku hartzeko eskari bat jasotzearekin batera hasten da. Gazteria Zuzendaritza udal bakoitzarekin hartu-emanetan jarriko da kasuan-kasuan abian jarriko den esku-hartze motari buruzko adostasuna lortzeko.

Programa honen bitartez, bi jarduera ordaintzen dira:



1. Teknikari taldea kontratatzeko. 6 lagunez osatutako talde hori Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko udal teknikariei aholkularitza emateaz arduratzen da.
2. Esku-hartzea bideratzeko, udalei zuzendutako diru-laguntzak ematen zaizkie..

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

Taula . Norengana iritsi da:

	GUZTIRA	EMAKUMEEN %	GIZONEN %
2012 parte hartu duten udal teknikariak	63	%81	%19
Aholkulari lan-taldea	6	%80	%20

Aholkularitza zerbitzuak 67 udalerrietan eskaintzen dira, zeinetan Gipuzkoako biztanleria osoaren %91,7a bizi den, eta 0 eta 29ra bitarteko biztanleriaren %91,3a.

2013 eta 2014ean zehar, esperientzia pilotu bat abian jarriko da, Berdintasun Zuzendaritzekin elkarlanean: "Txikiak berdinean". Udalerrri txikiekin (1000 biztanletik berakoak) lan egiteko modu berri bat saiatzeko esperientzia pilotua da. Nerabeekin, Beldur Barik egitasmoarekin lan egingo da.

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Gazteria Zuzendaritzatik, gizon eta emakumeen berdintasunean sakontzeko, aholkularitzan hobekuntzak bultzatu daitezke, bi eremuetan nagusiki:

- Aholkularien prestakuntza eta esperientzia eskatu eta sustatuz, genero politika eta proiektuen garapenean.
- Gazteriako Foru eta Udal teknikarien prestakuntza maila hobetuz, proiektuen diseinu, garapen eta ezarpenak genero ikuspegia txertatua izatea bermatzeko.

Azkenik, 2013ko diru-laguntzen ekitaldian, ondorengo baldintza betetzea eskatzen zaie udal onuradunei: "dagokion lankidetzat programako helburuetan, genero berdintasunaren ikuspegia sartzeko konpromisoa hartzea". Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Zerbitzutik jarraipena egin behar zaio, konpromiso hori bete dela ziurtatzeko.

**KULTURA, GAZTERIA ETA KIROLA**

DEPARTAMENTUA	Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Zerbitzua	2013	41.988.102 euro
		2014	43.440.935 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena	Gazteria (Udalekuak)
Kodigoa	2.20
Genero Egokitasuna	Garrantzi handikoa
Aurrekontua	6.431.408

1. Taula**Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia**

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA	544.591,00	547.866,00	380.799,00	390.482,00	0,60%	-30,49%	2,54%
DEPARTAMENTUAREN AURREKONTUAREKIKO %	4,99	8,08	6,27	0,90%	61,92%	-22,41%	-99,86%

Programaren helburuak, hartzailak eta jarduerak

Udalekuak 2012 programak, 7 eta 13 urte bitarteko haurrei zuzenduta, 959 plaza eskaini ditu 2013an. Eskaintza hau uztail eta abuzturako egiten da, eta gehienbat Arabako eta Bizkaiko foru aldundiekin lankidetzan antolatzen da.

Honakoak dira programan lortu nahi diren helburu nagusiak:

- Hiru lurralde historikoetako haurrei ahalbidetzea oporraldiez gozatu ahal izatea.
- Parte hartzen duten haurrak olgetan aritzea eta haien arteko bizikidetzaren erraztea.
- Olgetako aisialdia sustatzea.
- Parte hartzaileak gure inguruko natur ingurunera hurbiltzea.
- Euskara aisialdiko jardueretan komunikatzeko hizkuntza bezala erabil dezaten ahalbidetzea.
- Parte hartzaileei zona bakoitzeko ohiturak eta kultur baliabideak ezagutzera ematea.
- Laguntasuna, batasuna eta elkartasuna, besteak beste, sustatzea eguneroko bizikidetzan.

2012n jarduera horretako parte-hartzaileen balorazioa 8,6eko puntukoa izan zen hamarreko eskala batean.

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

Aurrekontuak baldintzatuak, udalekuen plazaren eskaintza %28 jaitsi da 2013an.



Udalekuak (7-13 urtekoak)	2012 urtea	2013 urtea	Aldea 2012/2013
7-13 plaza kopurua	1.330	913	-28

Udaleku eta Gazte Oporraldi kanpainetako, parte-hartzeari dagokionez, sexu aldagaiaren arabera datuak honakoak dira:

Sexuaren arabera partaidetzari dagokionez, datuak ondorengoak dira:

Neska-mutilak	GUZTIRA	Neskak %	Mutilak %
Aurre izen-emateak	4.312	58,88	41,12

Heziketa-premia bereziak dituztenak. Parte-hartzaileak: 45	Udalekuetako plaza kopuruarekiko % (913 plaza)	
	Neskak %	Mutilak %
Guztira	1,89	2,84

Udalekuetako zuzendari eta begiraleei dagokienez, sexuaren arabera banaketa honakoa da:

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Udalekuak (7-13)			
Zuzendariak	4	0	4
Begiraleak	3	1	4
Guztira	7	1	8

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Ikus daitekeenez, parte hartzen duten nesken ehunekoa mutilena baino 17,76 puntu handiagoa da. Lurraldean eskaintzen diren aisia hezitzaileko eskaintza desberdinetan, normalean, nesken parte-hartzea handiagoa da mutilena baino.

Nesken parte-hartzea mutilena baino handiagoa dela alde batera utzita, gure erronka da hezitzaile-taldeak udaleku desberdinetan genero-berdintasunaren gaia lantzeko gai izan daitezen haiek prestatzea. Erronka horrek beste bat dakar bere baitan, alegia: udalekuetako begirale eta zuzendariari espresuki egokitutako prestakuntza emango duten prestatzaileak aurkitzea; prestakuntza espezializatua lortzea, eta ikastaroak euskaraz emateko gai direnekin gainera.

**KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA**

DEPARTAMENTUA KULTURA, GAZTERIA ETA KIROLA

2013 41.988.102 euro

2014 43.440.935 euro

PROGRAMA ETA MUNTA

Izena Kirolaren sustapena

Kodea 2.30

Generoaren garrantzia Handia

Aurrekontua 13.686.493

1. taula

Programaren aurrekontuaren munta eta Departamentuan suposatzen duen portzentajea azkeneko urteetan.

	2011	2012	2013	2014	13/12	14/13
GASTUA	18.921.493	16.773.548	13.564.008	13.686.493	-%19,13	%1,84
DEP. AURREKONT. %	%65,47	%35,85	%32,30	%31,51	-%9,90	%-2,47

Kirolaren sustapena izeneko programa Kirol Zuzendaritza Nagusiaren esku hartzeko ildo nagusia da. Bere garaian, Departamentuaren aurrekontuaren %65,47 hartzen zuen, lehengo Kirol Zuzendaritzak eta Kanpo Ekintzako Zuzendaritzak osatzen zutenean. Portzentajearen pisuan 2012an eta 2013an izan duen beheraka nabarmena, taulan ikusten dena, Departamentuaren egituraketa berrian hainbat zuzendaritza sartu izanaren ondorioz, Departamentuaren aurrekontu orokorrak izandako igoyerari zor zaio nagusiki. Hala ere, esan beharra dago zenbaki absolutuetan ere 5.357.485 euroan murriztu dela programa bi urte horietan, eta horrek beherakada nabarmena adierazten duela, ia %25ekoa.

2. taula. Aurrekontu programan sartutako jarduera nagusiak eta aurrekontuko gastua

Jarduera ildoak	2012	2013	2013/2012	2014	2014/2013
0-18 programa (6-12)	1.920.067	1.327.260	-%30,87	2.138.021	%61,09
0-18 programa (12-16)	378.707	240.800	-%36,42	254.000	%5,48
Teknikakazioa	1.257.188	894.364	-%28,86	1.525.000	%70,51
Kirol federatua	2.084.259	1.258.567	-%39,62	2.153.200	%71,08
Goi Maila	4.611.320	4.220.502	-%8,48	3.215.920	-%23,80
Beste batzuk	6.512.007	5.622.515	-%13,66	4.527.867	-%19,47
Guztira	16.763.548	13.564.008	-%19,09	13.814.008	%1,84



Ikus daitekeenez, programako gasturik handienetako bat Goi Mailakoa da. Hor sartzen da KIROLGI Fundazioarentzako ekarpena, goi mailako emakumeen kirolari garrantzi berezia ematen diona.

Goi Mailako kirolaz gain, bolumenaren aldetik gastu garrantzitsuenak eskumen maila handieneko esku hartzei dagozkienak dira: 0-18 programa, Kirol federatua eta Teknikazioa.

Beste batzuk atalean sartzen da, eta nabarmentzen da, kirol ekipamenduen gastua (2.550.000,-€). Gastu hori ez da ebaluazioan sartu, gaur egun zaila baita adierazle egokiak ezartzea.

Programaren helburuak, kolektibo hartzaileak eta jarduerak

Lehen ere adierazi denez, *Kirolaren sustapena* da Kirol Zuzendaritza Nagusiaren jardura plana islatzen duen programa eta bere misioa da **gipuzkoarrei jardura fisikoa eta kirola praktikatzeko bideak eskaintzea, haien premiei, interesei eta nahiei egokituta eta Gipuzkoako gizartearen garapenari dagokion kalitate maila gordeta.**

Misio hori burutzeko, biztanleriaren segmentu desberdinei zuzendutako hainbat azpiprograma ditu aurrekontu programak:

0-18 programa adin tarte horretako gazteei zuzenduta dago baina hiru multzotan banatzen da: 0-6 (oraindik garatu gabe dagoena), 6-12 (Eskola kiroleko programa) eta 12-18 (Gazteen artean Kirola Sustatzeko Plana edo GKP). Programaren helburua da Zuzendaritzaren misioa adin tarte horietan aplikatzea, hain zuzen ere adin hori funtsezkoa delako ohitura osasungarriak eta kirola egitekoak sortzeko.

Kirol federatuko programaren helburua da Gipuzkoako kirol federazioak modernizatzea.

Goi Mailako kirolari ematen zaizkion laguntzen eta KIROLGIri egiten zaion ekarpenaren oinarrian dago kirola Lurraldearen identitatea eta gizarte kohesioa lortzeko elementutzat jotzea; hala, Gipuzkoan erreferentetzat jotzen diren klubak finantzatzen dira eta lankidetzak bultzatzen da KIROLGI Fundazioarekin, goi mailako taldeei nahiz banakako kirolariei laguntzeko Fundazioaren bitartez.

Txosten honetan aipatzen diren **Teknikazioko** jarduerak talentudun kirolariak detektatzeko eta prestatzeko programakoak eta Gipuzkoako klubekin futbolaren teknifikaziorako izenpetutako lankidetzak hitzarmenekoak dira. Programaren nahiz hitzarmenaren helburua da goi mailara iristen laguntzea horretarako gaitasuna eta jarrera erakusten duten kirolariei.

Beraz, esan daiteke programa horren inguruan hemen ebaluatuko diren esku hartze ildoak direla, funtsean, ikasleei zuzendutakoak (6-12), kirolari potentzialei zuzendutakoak (12-18), kirolari federatuei zuzendutakoak, eta goi mailara iritsi diren edo iristeko aukera garbiak dituzten kirolariei zuzendutakoak. Jardueren dagokienez, ebaluazio honetan ondorengo jardueren finantzaketa jasotzen da:

- 6-12 eta 12-18 adin tarteetako irakaskuntzako jardueren antolaketa eta kudeaketa.
- 6-12 adin tarteko lehiaketa jardueren antolaketa eta kudeaketa.
- 12-18 adin tarteko saskibaloiko, eskubaloiko eta arraunketako lehiaketa jardueren antolaketa eta kudeaketa.
- Gipuzkoako federazioen funtzio publikoak, modernizazioa eta beste jardura batzuk.
- Etorkizuneko promesa diren kirolarientzako orientazio zerbitzuak, kirolari horientzako laguntza ekintzak eta lurralde mailako teknifikazio jarduerak.



- Gipuzkoako goi mailako kirolari laguntza ematea Kirolgi Fundazioari egindako babes ekarpenaren bidez.

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

3. taula. Aipatutako jarduera ildoen onuradunak 2013an (2012-13 denboraldia):

ILDOA	ADIERAZLEA	GUZTIRA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEAK	EMAKUMEEN %
0-18	Eskola kirolariak <i>Irakaskuntzako jarduerak</i>	28.890	14.950	13.940	48,25
0-18	Eskola kirolariak <i>Lehiaketa jarduerak</i>	29.249	16.134	13.115	44,83
0-18 (12-16)	<i>Gazteen Kirol Planeko</i> kirolariak	5.634	2.986	2.648	47,
GOI MAILA	Kirolgiko kirolariak	2.960	1.605	1.355	45,77
TEKNIFIKAZIOA	<i>Talentudunen Planeko</i> kirolariak	12	5	7	58,33
TEKNIFIKAZIOA	Etorkizuneko <i>Promesa</i> kirolariak	175	107	68	38,85
FEDERATUA	Lizentzia federatuak (2011-12 denboraldia) (*)	69.377	60.940	8.437	12,16
TEKNIFIKAZIOA	<i>Futboleko Hitzarmena</i> , trebatzen ari diren kirolariak (2011-12 denboraldia) (*)	10.378	8.947	1.431	13,79
	Guztira	146.675	105.674	41.001	27,95

(*) Kirol federazio batzuek 2013aren amaierara arte ez dituzte aurkeztuko 2012-13 denboraldiko datuak.

Analisi edo gogoeta kualitatiboa

Ikus daitekeenez, adierazle globalen arabera, ebaluatutako programen eta laguntzen **onuradun guztien heren bat baino gutxixeago dira emakumeak.**

Aurrez esan behar da generoak aurrekontuan duen eragina ebaluatzeko eskuragarri dauden adierazleek ez dutela guztiz islatuko emakumeen kirol jarduera orokorra Gipuzkoan. Adibidez, ezin izan da sartu udaletako kirol jardueraren daturik, nahiz eta 2009ko datuek erakusten diguten udaletako kirol instalazioetan izena emanda dauden emakumeak 75.438 direla (guztira izena emanda dauden pertsonak 159.355 direla kontuan hartuta), hau da, % 47,34.

Erabilgarri ditugun adierazleek esku hartze ildoen arabera banakatuta ematen dituzte portzentajeak eta, datu horien arabera, portzentajeen banda **%12,16tik** (Kirol Federatuko emakume onuradunak) **% 58,33ra** bitartekoa da (Talentudunen Planeko emakume kirolariak).

Azken ildo horretan partaidetza ia-ia parekoa da eta, gainera, **erdietan %40tik gorakoa da.**

Emaitzak aztertzerakoan kontuan hartu behar da Lurraldeko kirol jardueraren errealitatea, izan ere lortutako datuak interpretatzeko jakin behar da zeintzuk diren kirol jarduerarako ohiturak Gipuzkoan eta Administrazioak zer aukera duen ohitura horiek aldarazteko.

Baldintzapen soziokulturalek eragin dute gaur egun horren nabaria den gizon-emakumeen arteko berdintasunik eza kirol jardunean. Baldintzapen horien eboluzioari eta Administrazioaren esku hartzeari esker, kopuru horiek aldatzen ari dira berdintasunera hurbilduz; alabaina, kirolaren oinarriko egitura tradizionalak (klubak eta federazioak) bultzatu duten ereduak eragin handia du eta hori garbi islatzen da emakumeen kirol jardunari buruzko datu orokorretan. Horren adibide da futboleko trebakuntzan parte



hartzen duten emakumeen portzentaje baxua (%13,79), batez besteko orokorra nabarmen aldatzen duena.

Elkarteen eta federazioen arloan adierazitako berdintasunik eza oso adierazgarria da epaileei (% 11,27), teknikariei (% 7,38) eta, bereziki, federazio eta klubetako zuzendaritza karguei dagokienez. Azken horien kasuan, lurralde federazioetako lehendakari kargutan emakumeak % 11,11 dira.

Administrazioaren esku hartzea handitzen den neurrian, emakumeen kirol jarduna ere handitu egiten da. Hori dela eta, portzentaje handienak Administrazioak diseinatutako eta kudeatutako programetakoak dira. Zehazki, emakumeen parte hartzearen indizeak parekotasunera iristen ari dira ondorengo programetan: Eskola Kirola/ Irakaskuntza (% 48,25), Eskola Kirola / Lehiaketakoa (% 44,83) eta GKP (% 47).

Goi Mailan, Kirolgiri egindako ekarpenen onuradunen %45,77 emakumeak dira. Hori horrela da kontzeptu horretan faktore erabakigarria ez delako kirolarien kopurua, emaitzak baizik. Beraz, hemen adierazten diren portzentajeak ez lirateke berdinak izango kontuan hartuko bagenu kirolari bakoitzari berariaz xedatzen zaion aurrekontua, praktikan, gizonezko kirolariei edo taldeei egindako ekarpena emakumezkoiei egindakoa baino handiagoa baita.

Kirol arloko Berdintasun Planaren bitartez ezabatu nahi dira Gipuzkoan emakumeen kirol jardunaren berdintasuna eragozten duten oztupoak. Plan hori Gipuzkoa Kirolak webgunean argitaratuta dago: <http://www.gipuzkoakirolak.net/orria.php?hizkntz=2&pg=71>

Jarraian azaltzen da 2012an egindako jardueren zerrenda:

4. taula.

Jarduera	Egoera	%
Gipuzkoako kirol eragileen artean zabaltzea, Gipuzkoako kirolean gertatzen ari diren ezberdintasun egoeren berri on-line emateko aukera dagoela.	Burutua	100
Jasotako kexei erantzutea eta neurriak ezartzea, kasua denean, salatutako ezberdintasun egoera ezabatzeke.	Burutzen	50
2012ko hauteskunde prozesuetan erabiliko diren Gipuzkoako kirol federazioen hauteskunde araudiak aztertzea.	Burutua	100
Gipuzkoako kirol federazio eta klubetako ordezkariak prestakuntza ematea berdintasun arloan, bereziki, jasotako diru laguntzak justifikatzeko aurkeztu behar duten dokumentazioari buruz.	Burutua	100
Egindako proposamenak eskola kiroleko programan sartzea	Burutzen	0
Kirol klubek eta federazioek aurkeztutako dokumentazioaren segimendua egitea genero ikuspegia kontuan hartzen duten ala ez ikusteko.	Burutzen	40

Berdintasun gaiei dagokienez diru laguntzak emateko irizpideak aldatzeko 2011n burututako jardueraren ondorioz, honako betekizun hauek gehitzea proposatu zen:



5. taula.

Baldintzak/ diru laguntza lerroa	Jasotako diru laguntzaren (edo aurrekontu orokorraren) * genero eragina	Lizentzien datuak (kirolariak, epaileak eta teknikariak, sexuaren arabera banatuta)	Txostenean azaltzea emakumeak (kirolariak, epaileak, teknikariak, kudeatzaileak) kirol munduan txertatzeko egindako jarduera bereziak	Hizkera ez sexista erabiltzea aurkeztutako jardueren txostenean	Diruz lagundutako jardueren publizitatean hizkera eta irudi ez sexistak erabiltzea
Federazioak	√	√	√	√	√
Tokiko entitateak	√			√	√
Kirol gaia	√	√	√	√	√

(*) Datu ekonomikoak sexuen arabera banakatuta aurkeztu behar dira (diru laguntza eskatzeko aurrekontuan eta diru laguntza emandakoan aurkeztu behar diren txostenetako balantzeetan)

Bestalde, diruz laguntzeko lerroetan, 2013ko ekitaldian zehar, Kirol Zuzendaritza Nagusiak irizpide espezifiko batzuk gehitu ditu emakumeen kirol jarduna sustatzeko.

- Laguntza lerro berezi bat finkatu da berdintasuneko ekintzak garatzen dituzten Gipuzkoako kirol entitateentzat (8. eranskina, 15.000,-€).
- Kirolgiri emandako laguntzetan, emakume taldeek lortzen duten laguntza beren aurrekontuaren erdia da; gizonezkoen taldeek, berriz, aurrekontuaren %35eko laguntza jasotzen dute.
- Klubei ematen zaizkien laguntzetan, emakumeen lizentziek %20 gehiagoko balioa dute gizonezkoen lizentzien balioarekiko.
- Arautu gabeko prestakuntzarako eta kirol titulazioak lortzeko ematen diren laguntzetan, %10eko faktore zuzentzailea aplikatzen da ikastaroan parte hartzen duen emakume bakoitzeko.
- Arraun modalitatearen antolamendu politikan, emakumeen traineruentzako laguntzak laukoiztu egin dira; horrela bermatu da Gipuzkoako emakumeen ontzien presentzia proba guztietan, eta kirol emaitza bikainak lortu dituzte gainera.